

Xabierko Santutegia

Castillo y Santuario de Javier, custodiados hoy por los Padres jesuitas, no siempre han contado con esa Comunidad de religiosos. Comparativamente con Loyola, su presencia aquí ha sido tardía, y la misma se demoró hasta 1893, año en que la Compañía de Jesús pudo, finalmente, hacerse cargo de esta casa natal de San Francisco. Pueblo y parroquia, castillo y santuario, con los diversos servicios que se han ido creando o la Javierada, testimonian hoy el auge de Javier en el siglo XX.

Nafarroako Xabier gune erlijioso estimatua da Euskal Herrian, gure Santutegirik maiteenetakoa zalan-tzarik gabe, eta kasu honetan nazioartean, Loiolak bezala, oihartzun handia izan duena. Xabierra leku askotatik joan daiteke, eta egiaz halaxe gertatzen da, etorri ere nonahitik datozela erromesak, taldean nahiz banaka. Horretarako arrazoirik nagusia Frantzisko Xabierrekoa bera da, beste edozein arrazoiren aurretik.

Frantzisko Xabier (1506-1552)

Frantzisko Xabier-en abizena ez zen "Xabier", Jaso eta Azpilkueta baizik; hala ere, santu izan eta geroztik, *Javier, Xavier, Xaver* edo *Xabier* bezala ezagutu du historiak, eta Nafarroako leku-izen hori bataiatu askorentzat ponte-izen bihurtu da.

Frantzisko Jasoren Euskal Herriko bizialdia (1506-1525) ez zen samurra izan haren familiarentzat, muti-koak sei urte zituela, gaztelauek Erreinau armaz hartu nahi zutelarik, aitak eta senideek erasoari erantzun behar izan baitzioten, beste nafar anitzek bezala. Haur eta nerabeak urtez urte ikusi behar izan zuen ezbeharrak nola zetozen sendiaren gainera: hamar urte zituela ikusi zuen gazteluko dorreak iraisten (1516), eta, aita galdurik (†1515), bi anaia, Migel eta Joan, heriotzara kondenatuta, harik eta indultu batek salbatu zituen arte (1524).

Handik aurrera ibilera luzeko gizona izango zen Frantzisko. Lehenengo, European eman zituen hama-

bost urte pasatxo (1525eko udazkenetik 1541eko apirila arte), ondoren, Afrika inguratuz Indiarako bidaiara urte betean eginda, Asiako lurraldeetan hamaikataxo herritan Misio-lanari heldu zion arte (1542-1552).

Hemeretzi urterekin joan zen Parisera, hango Unibertsitatean bere goi-ikasketak egiteko (1525). Paris hura hauta-bidez osatutako bidegurutzea suertatu zitzaion gazteari, ez bakarrik prestakuntza ona eman ziolako ("Maisutza" irabazi zuen han), baita, ikasketak gorabehera, Loiolako Eneko ezagutu eta bien artean sortu zen adiskidetasunagatik ere (1533-1535). Asmo bertsuetara bilduz joan zirenen artean sortuko zuten Jesusen Lagundia, Montmatre-tik hasi (1434) eta Erromaraino (1540).

Eneko Loiolakoarekin batera egin zen apaiz Italian (1537), eta biok eta lagunak dotrina eman, predikua egin eta ospitaletako pobre eta gaixoak zaintzen saiatu ziren, jateko, eskean zebiltzala. Elizako lana bezala kalekoa ere bazen hura, kalez kale egina, plazaz plaza, Venezian eta inguruetako hirietan. Urte berean, Erroman zegoen Frantzisko bere Lagunekin.

Erroma izan zen Lagundiarentzat Aita Santuaren onarpena irabazteko hiriburua, horretarako premiazkoak ziren urratsak emanda, batez ere lagunarte hari barne-batasuna eta egitura emango zizkio-ten Arauak elkarren artean landuta. Indiarako atera zenez, Frantziskok 1540tik aurrera ez zuen izango gero lanbide horretan bertatik bertara parte hartzerik, baina lehen uneko erabaki handietan esku zuzena izan



zuen, San Ignazio eta beste lagunen ondoan. Orduko eztabaiden emaitza izan zen *Summa Instituti* deituriko Arautegi fundatzailea.

Hamar urtetan burutu zuen Frantziskok Asiako bere misiolari-zeregina (1541-1552), Indiako portugaldarren Goa hiritik ekin eta hegoalderantz, Sri Lanka/Zeilaneraino, ondoren Malaka, gaurko Indonesia (Ternate, Mairuaren Irla, Moluka Irlak) eta Japoniaraino iristeko. Txinako atari-atarian hil zen, Sancian/Shangchuan irlan 1552ko abenduaren 3an. Bere ibilera nekaezinean, tokian tokiko gizarte, kultura eta gizakiak aintzakotzat hartuta jardun zuen, betiere Ebanjelioaren predikari zelarik, ezinbestean kolonialismoak zituen ajeak eta laguntzak inguruan zituela.

Frantzisko Xabier, 1622an San Ignaziorekin batera "Santu" aitortua, batez ere Misio katolikoan zaindari bezala da ezaguna (1927). Elizak eta Nafarroako Gorteen Erreinuak zaindari ere hautatu zuten (1634). Horrek guztiak eta erakarri izan dituen erromesek eman diote Santutegi-izana Xabier-ko gune eta elizari.

Gaurko Xabier (1893-2011)

Xabierko jesulagunen Komunitateak historia xumea du, 1889an hasita. Loiola, Xabier, Borja eta abarren leinuak, hirurak, biltzen zituztenen eskuetara etorri ziren Gaztelua eta lurren jabetza: azkenik, guztien jabea zen Villahermosako dukesak utzi zizkion Jesusen Lagundiari urte hartan. Testamentu horren ondorioa izan zen jesulagunak Xabierren bizitzen jartzea.

Une hartan dena zegoen egiteko, utzikieriaz hondamendi triste batean baitzegoen Xabier orduan: gaztelua zaharbeherritu behar zen, jesulagunentzat bizilekua egokitu, Xabierko eliza eraiki, eta behar izango ziren zerbitzuak asmatu eta eratu.

Dukesak berak heldu zion lehen egiteko hari, hau

da, gaztelua berritzeari (1892-1895), emaitza onekin, baina ez tirabira pertsonalik gabe, gure dukesa bihotz zabalekoa eta jenio bizikoa baitzen. Loiolako Errektore Nagusia bertan zela sartu ziren Xabierren jesulagunak, 1893ko abenduaren 3an, San Frantzisko beraren jai-egunean.

Artean ez zegoen han elizarik, eta berehalako egin-kizuna izan zen eliza berria jasotzea: 1901ean ospatu zen estreinaldia. Hurrengo garrantzizko pausua Lagundiarentzat Xabierren mundurako bideak irekitzen hastea izan zen, bertan apaizgaitegia jarritz, Eskola Apostolikoa deituan (1904), eta Komunitatea bera ere bertara bilduta.

Hau dena indarrean egon zen harik eta II. Errepublikak Jeusen Lagundia sakabatu zuen arte (1932), eta orduan ere Zangozako etxe batean jarraitu ahal izan zuen, bere gisara, gazteen Eskola hark.

Mende erdia betetzean (1904-1954), ehunka gazte ziren Xabierko Eskola hartatik pasatako gazteak, zehazki 1.605 ikasle: haietako 651 Lagundian sartuko ziren gero, eta 155 anaia laguntzailek ere han aurkitu zuten Lagundirako sarrera; bestalde ezin dira ahaztu beste Ordenetara joandako hainbat, eta euskal gizarte herritarrera prestakuntza egokiago batekin itzulitakoak.

1987an, apaizgaitegi hura espiritualtasun ignaziotarraren barnetegi bihurtu da (Gogartetxea eta Gazteen Biltokia), betiere bestelako espiritualitate-eri leihoak irekita diharduelarik. Euskal kulturaren Antonio Zavala jesulagun euskaltzaina gogora dezakegu hemen, hain zuzen Xabierretik egin baitzuen bertsolaritzaren aldeko lanik handiena.

Gaur egun, Xabierren 13 jesulagun bizi dira, Santutegia zaintzen.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrak: 610273580